BORTZIRIAK

XTREME 2026

OINEZKO MENDI ZEHARKALDIA

INFORMAZIO TXOSTENA

2026 | APIRILAK 2-3-4-5

MENDI ZEHARKALDIA | 4 ETAPA | 85 KM | 4900M D+

ANTOLATZAILEA: GARMENDI MENDI GIDARIA

GAR·MENDI
·IBAI ITURRIA GARMENDIA·
·MENDI GIDARIA

AURKEZPENA

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

BORTZIRIAK XTREME ITZULI DA! – 2. EDIZIOA!

2026ko Aste Santuan berriro ere itzuliko gara, Nafarroa iparraldeko bihotzean abentura berriarekin.

Bortziriak Xtreme mendiko zeharkaldia, inoiz baino indartsuago itzuli da!. Bigarren edizio honetan, jatorrizko erronkaren espiritua mantentzen dugu, baina ibilbidearen noranzkoan aldaketak eta estantzi berriak izango ditugu zeharkaldian zehar, esperientzia bereziago bihurtuz.

4 etapatan, Bortziriak Gipuzkoatik eta Lapurditik bereizten dituzten muga historikoak zeharkatuko dituzu, **85 kilometro eta 4.900 metroko desnibel positiboari aurre eginez.**

Mila urteko basoak eta arnasa kentzen duten paisaiak izango dituzu zain, ibiltzea baino gehiago bilatzen dutenentzat diseinatutako zeharkaldi honetan: **benetako erronka fisiko eta mentala**. Urratsez urrats, mendi hauen edertasun basatiaz gozatu ahal izango duzu, zure gaitasuna erakusten duzun bitartean.

PREST AL ZAUDE ERRONKA ONARTZEKO?

DESKRIBAPENA

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

BORTZIRIAK XTREME: 4 ETAPETAKO ZEHARKALDIA – 2. EDIZIOA

Bigarren edizio honetan, Bortzirietako mendietara itzultzen gara abenturaz beteriko espiritu berarekin, baina ibilbidearen noranzkoa aldatu dugu antolakuntzatik kanpoko arrazoiengatik.

4 etapak eta distantzia bera mantentzen ditugu, maila bereko ibilbide zoragarri eta esijentea eskainiz.

Abentura Ibardinen (Bera) (310m) hasten da, handik **Larrun mendira (905 m)** igoerari ekinez. Itsasorako eta Nafarroa iparraldeko ibarretara begirako ikuspegi panoramikoak dituen gailur enblematikoa da. Handik, Lizuniagara jaisten gara GR11 ibilbidea hartzeko, eta bertatik Etxalarrera iritsiko gara, lehen egun gogorraren ondoren bertan igaroko dugularik gaua.

Bigarren etapan, **Azkua mendira (786 m)** igoko gara, ondoren Arantzarako bidea hartuko dugu etapa bukatzeko. Bertan, berriro ere, Arantzako Aterpeak hartuko gaitu, lehen edizioan bezala. Eguna lasaiagoa da, hurrengo eguneko etaparako indarrak berreskuratzeko egokia.

Hirugarren egunean, **etapa nagusiari egingo diogu aurre: 26 kilometro eta 1.000 metro baino gehiagoko desnibel positiboa dituen ibilbidea.** Ekaitza, Izu eta Bianditz gailurrak igoko ditugu, zeharkaldiaren atal tekniko eta ikusgarrienetako batez gozatuaz, Arritxuloko aterpera (Oiartzun) iritsi aurretik.

Azken etapa Arritxulotik abiatuko da, GR11 jarraituz Berara jaitsiz, eta hortik berriz Ibardinera igoko gara, edizio honen hasiera eta amaiera puntu berean bukatzeko. Han, Mendiko Sagardotegian zain izango dugu merezitako sagardotegi-menua, lau eguneko abentura, esfortzu eta laguntasunari amaiera bikaina emateko.

MENDI GIDARIA

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

Ibai Iturria Garmendia naiz, Bera (Nafarroa) herrian jaioa eta hazia, naturarekiko, mendiarekiko eta kirolarekiko nire pasioa oso gaztetatik piztu zidan ingurune pribilegiatuan.

2013. urtean, nire bizitzari norabide berri bat ematea erabaki nuen, eta erabat mendiari eskaintzea. Betidanik erakarri nau bere indarrak, lasaitasunak eta transmititzen dituen balioek. Nire bidea trail running-arekin hasi zen, ahalegina, abentura eta naturarekiko lotura uztartzeko aukera eman zidan diziplina batean. Hala ere, lesio batek lehiaketa uztera behartu ninduen, eta inflexio puntu horrek mendiarekin nuen harremana beste ikuspegi batetik lantzera bultzatu ninduen: ezagutzatik, segurtasunetik eta esperientziak partekatzetik.

2022 eta 2024 artean, mendi-gidari gisa nire prestakuntza osatu nuen, nire pasioa ofizio bihurtuz. Prozesu horretan, trebetasun teknikoak eta orientazio-gaitasunak eskuratzeaz gain, natur inguruneetan pertsonak laguntzeko, motibatzeko eta zaintzeko ahalmena garatu nuen, mendiaz modu seguruan eta arduratsuan goza dezaten lagunduz.

MENDI GIDARIA

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

2025. urtean, nire ibilbidea sendotu dut urtebeteko esperientzia profesionalarekin, mendi-irteerak eta zeharkaldiak gidatu eta antolatzen, guztiak nik neuk erabat planifikatu, kudeatu eta zuzenduak.

Autonomo gisa lehen urte honek aukera eman dit nire ibilbide propioak diseinatzeko, maila ezberdinetako taldeak koordinatzeko eta dozenaka pertsonarekin batera paisaia berriak ezagutzeak eta erronka pertsonalak gainditzeak ematen duen emozioa partekatzeko.

Gaur egun ere, gidari gisa hazten jarraitzen dut, hasieratik bultzatu nauten ilusio eta mendiarekiko errespetu berarekin. Nire helburua esperientzia egiazkoak, seguruak eta aberasgarriak eskaintzea da, non parte-hartzaile bakoitzak bere burua eta ingurunea modu sakonean konektatuta senti ditzakeen.

Zure hurrengo abenturan lagun egitea ohore bat izango da.

IBAI ITURRIA GARMENDIA

TD2 - MENDI ERTAINEKO GIDARIA (AEGM 2195 - UIMLA)

IBILBIDEA ETA PROGRAMA

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

1 - ETAPA

1. **EGUNA | APIRILAK 2, OSTEGUNA**

- **IBARDIN (BERA) - LARUN - ETXALAR**
  - **KILOMETROAK:** 21,3KM
  - **DESNIBELA:** 890M D+ | 1.115M D-
  - **ESFORTZU FISIKOA(1-5):** 4
  - **GAUA:** ETXALAR (TOMPALENEA ATERPEA)

2 - ETAPA

2. EGUNA | APIRILAK 3, OSTIRALA

- **ETXALAR - IGANTZIKO BENTAK - ARANTZA**
  - **KILOMETROAK:** 15,9KM
  - **DESNIBELA:** 1000M D+ | 805M D-
  - **ESFORTZU FISIKOA(1-5):** 3
  - **GAUA:** ARANTZAKO ATERPEA



3 - ETAPA

3. EGUNA | APIRILAK 4, LARUNBATA

- **ARANTZA - ARRITXULO ATERPEA**
  - **KILOMETROAK:** 26,7KM
  - **DESNIBELA:** 1.400M D+ | 1.115M D-
  - **ESFORTZU FISIKOA(1-5):** 5
  - **GAUA:** REFUGIO DE ARRITXULO



4 - ETAPA

4. EGUNA | APIRILAK 5, IGANDEA

- **ARRITXULO - BERA - IBARDIN (BERA)**
  - **KILOMETROAK:** 17,9KM
  - **DESNIBELA:** 850M D+ | 704M D-
  - **ESFORTZU FISIKOA(1-5):** 2
- **BAZKARIA:** MENDIKO SAGARDOTEGIAN (IBARDIN)



GAR·MENDI
·IBAI ITURRIA GARMENDIA·
·MENDI GIDARIA

IIBILBIDEAREN INFOGRAFIA

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

GAR·MENDI
·IBAI ITURRIA GARMENDIA·
·MENDI GIDARIA

PREZIOAK

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

PREZIOAN SARTZEN DA

- Jardueraren aurreko aholkularitza.
- Ongietorri kafea Ibardinen
- Pentsio erdia 2 aterpeetan: Arritxulo, Arantzako Aterpe.
- Gaua eta gosaria Tompalenea albergean. Ez dute Afaririk ematen
- Bokata afaria Etxalarren. Lehendabiziko eguna
- Gidaritza zerbitzua: Mendi Ertaineko Gida tituluduna (AEGM-UIMLA).
- Istripu eta erantzukizun zibila aseguruak.
- Mendi gidariaren ordainsariak
- B.E.Z-a.

EZ DA PREZIOAN SARTZEN

- Bukaerako taldeko bazkaria Mendiko Sagardotegian
- Motxila astunen aterpeetarako garraio zerbitzua.
- Bezeroa hasierako puntura (Ibardin) eta helmugara itzultzeko garraio gastuak.
- Kontrolatu ezin diren egoerak (hondamendi naturalak, arazo atmosferikoak edo meteorologikoak, etab.) programaren aldaketan eragindako aparteko gastuak ez dira sartu.
- Bezeroak egiten duen edozein erosketa.
- Aurreko atalean zehaztu ez den edozein zerbitzu.

PREZIOA

GUTXIENEKO TALDEA: 5pax

Pack A *(Bazkaria eta garraio zerbitzurik gabeko prezioa)*
- **385€**/pax

Pack B *(Garraio zerbitzurik gabe, baina bukaerako bazkaria barne)*
- **420€**/pax

Pack D *(Garraio zerbitzua bai. Bukaerako bazkaria ez)*
- **425€**/pax *(Garraio zerbitzua 4 egunetarako izango da)*

Pack E *(Garraio zerbitzua eta bazkaria barne)*
- **455€**/pax

GAR·MENDI
·IBAI ITURRIA GARMENDIA·
·MENDI GIDARIA

MATERIALA

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

MENDIRAKO

- 50L-ko motxila euri-babesarekin.
- Mendiko botak (*kaña ertaina*).
- Arropa tekniko transpiragarria (kamiseta, praka luzeak, forru polarra).
- Jaka iragazgaitza eta haize-babesak (Gore-Tex motakoak).
- Plumiferoa.
- Txanoa, eskularruak eta lepokoa (hautazkoa).
- Trekking makila (hautazkoa, baina, gomendagarria).
- UV babesa duten eguzkitako betaurrekoak.
- Lehen sorospenerako oinarrizko kit-a (botikina).
- Kantinplora edo hidratazio-sistema (gutxienez 2L).
- Janari energetikoak (fruitu lehorrak, barritak, gelak).
- Eguzkitako krema eta ezpainetako babesa.
- Aterki txikia (euria egiten badu).

ATERPERAKO

- Arropa erosoa eta beroa, aldatzeko eta atseden hartzeko.
- Mudak.
- Zapatilak edo oinetako arinak (crocks-ak) aterpeetarako.
- Pijama.
- Garbiketa pertsonaleko gauzak (hortz eskuila, hortzetako pasta, toaila txikia, xaboia).
- Lo zakua.
- Mugikorrerako kargagailua.
- Argi frontala.
- Ordezko pilak edota bateriak.
- Belarrietarako tapoiak eta antifazea (hautazkoa).

DOKUMENTAZIO PERTSONALA

- Nortasun agiria.
- Mendi federazio txartela (federatuta bazaude).
- Osasun txartela.
- Eskudiruan (50€).
- Kreditu edo debitu txartela.

GAR·MENDI
·IBAI ITURRIA GARMENDIA·
·MENDI GIDARIA

OHAR GARRANTZITSUA

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

GOMENDATUTAKO KONDIZIO FISIKOA

- Bortziriak **Xtreme,** zailtasun tekniko baxua duen 4 etapatan banatutako ibilbidea da, **baina fisikoki oso gogorra**. **Egun gehienetan 20 kilometro baino gehiagoko distantziak eta +1.000 metro inguruko desnibel positiboak gainditzen dira**, eta horrek esperientzia erronka fisiko garrantzitsu bihurtzen du. Horregatik, komeni da parte-hartzaileek mendian distantzia luzeak egiten ohituta egotea eta gutxieneko forma fisiko ona izatea.

- Zeharkaldia ez da alta montañako jarduera eta ez du pasabide teknikorik, baina etapetan zehar parte-hartzaile bakoitzak eguneko materiala eta aterperako arropa motxilan eraman beharko ditu, eta horrek esfortzua handitzen du.

- **Esperientzia errazteko, Garmendi Mendi Gidaria-k aukera eskaintzen du taldearen maleta handiak taxi bidez aterpeetara eramateko.** Horrela, parte-hartzaileek motxila arinagoarekin egin ahal izango dituzte etapak, egun bakoitzerako beharrezkoa dena soilik eramanez.

- Bortziriak Xtreme-aren helburua ibilbide zoragarri hau modu seguru eta atseginean bizitzea da, ahalegina partekatuz eta Bortzirietako mendi eta bailarak gozatzeko aukera emanez.

ZEHARKALDIA %50-ERA EGOKITUA

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

ZEHARKALDIA AZKEN 2 EGUNETAN EGITEKO AUKERA (GAUR BATEKO EGONALDIA)

B**ORTZIRIAK XTREME 50%**

zeharkaldia azken bi etapetan egitea proposatzen da (3. eta 4. etapak). Jarduera bi egunetan kontzentratuz eta gau bateko egonaldiarekin.

50% AUKERAREN AKTIBAZIO-BALDINTZAK

- Bortziriak Xtreme 50% aukera, zeharkaldi osoan (4 egunekoa) gutxienez 5 pertsona izena emanda daudenean bakarrik aktibatuko da.
- Gutxieneko kopuru hori lortu arte, ez da onartuko 50% modalitaterako izen-ematerik.
- Zeharkaldi osoko gutxieneko taldea baieztatu ondoren, 50% aukeran parte hartu nahi duten pertsonak gehitzeko aukera irekiko da.

ETAPAK

- 1.Eguna (apirilak 4, larunbata) (3. etapa): Arantza – Refugio de Arritxulo
- 2.Eguna (apirilak 5, igandea)(4. etapa): Arritxulo – Bera – Ibardin

GARRAIOAREN LOGISTIKA (NAHITAEZKOA)

- Parte-hartzaileak, norberaren kotxea Ibardinen utzi beharko du, zeharkaldia bukatzen den gunean.
- 3. etaparen hasierako egunean, goizean, taxi zerbitzu batek (prezioan barne) parte-hartzailea Ibardinetik etaparen hasierako puntura eramango du.
- Logistika hau derrigorrezkoa eta aldaezina da. Kotxea, zeharkaldiaren amaieran bertan egoteko.

TRAVESÍA AL 50%

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

MALETEN GARRAIO ZERBITZUA (AUKERAKOA)

- Bi eguneko zeharkaldirako, maleten garraio zerbitzua kontratatzeko aukera egongo da.
- Gehigarria: **40€** (bi etapari dagokiena).
- Zerbitzu honekin, etapetan motxila arinagoarekin ibiltzeko aukera ematen du, egun bakoitzerako beharrezkoa den materiala soilik eramanez.

BORTZIRIAK XTREME 50% PREZIOAK

- Bortziriak Xtreme 50%: **250€/pax** (Taxi eta bazkari zerbitzurik gabe)
- Bortziriak Xtreme 50%: **+40€** gehigarria (Motxila astunaren garraio zerbitzua)
- Bortziriak Xtreme 50%: **+35€** gehigarria (bukaerako Sagardotegiko bazkaria zerbitzua)

ARGAZKIAK

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

IBARDIN

ARRITXULO ATERPEA

ARANTZAKO ATERPEA

TOMPALENEA ATERPEA



MENDIKO SAGARDOTERGIA



LIZAIETAKO LEPOA

GAR·MENDI
·IBAI ITURRIA GARMENDIA·
·MENDI GIDARIA

IZEN-EMATEAK

BORTZIRIAK **XTREME 2026**

Zeharkaldian parte hartzera animatzen bazara, nirekin harremanetan jar zaitezke info@garmendi.eus helbidera mezu bat bidaliz edo WhatsApp bidez 647 29 61 04 zenbakira mezu bat bidaliz. Izena emateko inprimakia eta zure erregistroa osatzeko behar duzun dokumentazioa bidaliko dizkizut.

Eskerrik asko aldez aurretik zeharkaldian interesa izateagatik. Espero dut proposamena zure gustukoa izan dela.

WHATSAPP - 647 29 61 04 (IBAI ITURRIA GARMENDIA)
info@garmendi.eus
Instagram - @_garmendi_ - @ibai_iturria_garmendia

GARMENDI
·IBAI ITURRIA GARMENDIA·
·MENDI GIDARIA